

Gai ordena:

1. Ur kontsumoa
2. Diru laguntza bat langabetu bat kontratatzeke
3. Ibai bazterrak garbitzeko ekimena
4. Partaidetzako aurrekontuak Goierrin
5. Eskola berriaren inguruko kontsulta
6. Jaurlearitzaren ingurumeneko dirulaguntza
7. Bestelako kontuak

1. Ur kontsumoa

KF kideak komentatu du errolda eta ur kontsumoaren datuak gurutzatu nahi genituela, ur gutxien kontsumitzen duten herritarrei hobariak ezartzeko. Kontsulta egin ondoren esan digute momentu honetan bi zerrendak ezin direla gurutzatu (zailtasun teknikoak omen daude). Jakin dugu Ur Kontsurtzioak ekimen hau bultzatu nahi duela.

OAK azaldu digu bi aktuazio egin behar direla. Lehenengoa ur depositoan: Lehen erabiltzen zen ur toma zaharra depositioan sartu eta atera egiten da. Nahiz eta desgaitua egon teknikariek esan dute hori ezin dela horrela mantendu eta konpondu beharra dagoela. Bigarrena: ur depositotik ateratzen den errekaetroak etxe bati noizean behin arazoak eragiten dizkio eta noizbait konpontzeko saiakera egin badira ere konponketa hori egiteko beharrezkoa zen baimena ez genuen lortzen. Oriangoan lortu da eta konpondu egingo da.

OAK ere esplikatu du estankoan fuga txiki bat dagoela, laster konponduko dana eta badaukagula identifikatu gabeko beste fuga bat. Horrekin lotuta esan beharra dago bi kontagailu sektorialek ez dituztela neurketak ondo egiten. Iaz fuga ugari konpondu ziren.

Herritarren ur kontsumo indibidualari dagokionez IAK esan du ezer egin aurretik herriko egoera orokorra aztertu beharra dagoela, batzbesteko ur kontsumoaren zenbakiak begiratu mediaren gainetik edo azpitik gauden ikusteko. IA bera Pako teknikariarekin bilduko da datu horiek eskuratzeko.

2. Diru laguntza bat langabetu bat kontratatzeke

AG alkateak azaldu du Goiekik dirulaguntza deialdi bat daukala martxan, Irailetik aurrera hilabete batzuk langabetu bat kontratatu ahal izateko. 12000 euro arte eskatu daiteke, baina azkenean esleitu diezaguketean dirua askoz baxuagoa izan daiteke, laguntza eskatzen duten herri kopuruaren arabera. Hasieran hirigintzarekin lotuta dauden lanak egiteko eskatzea pentsatu badugu ere (adibidez Behoko Kaleko proiekturako) azkenean aukera hori baztertu dugu ez baitugu egokia ikusten hain lan garrantzitsua baliabide horiekin egiten hastea. Pelota ongizate lantaldeari pasako zaio eta bestela kontsideratuko da Udaletxean egin behar diren lan informatiko ugariak gauzatzeko informatikari bat kontratatzea.

3. Ibai bazterrak garbitzeko ekimena

DE taldekiadea Goiekiko teknikari berriarekin egon da gai hau lantzeko. Hark esan digu komeni zaigula Ur Agentziarekin Konbenio bat sinatzea (beste herri batzuk egiten ari diren moduan). Konbenio hori minimoa da (adibidez ez da aurreikusten ibaien garbiketa), baina beste ezer egin ahal izateko betekizun minimoa da konbenio hori sinatuta izatea. Dek konbenioa dauka eta irakurri eta aztertuko du.

4. Partaidetzako aurrekontuak Goierrin

Datorren Apirilak 29an Aldundiak martxan jarri duen prozesuaren batzarra dago deituta Itsasondon. Bertan eskualde mailan inbertsio proposamenak egin behar dira. Gure lantaldean proposamen hauek eramatea adostu dugu:

- Ibaiaren garbiketa
- Hondakinen zerbitzua publikatzea
- Barrera akustikoak N1 errepidean.
- Bidegorri sare funtzionala bultzatzea, bizikleta publikoen zerbitzua.
- Herri ezberdinek darabilten oinarritzko azpiegiturak/baliabideak konpartitu ahal izateko zerbitzua (traktore batetik hasita, jaietarako karpak...)

5. Eskola berriaren inguruko kontsulta

OAK Jauralaritako arkitektoari galdetu zion ea etorkizuneko eskola berriak planteatzen diguten baino azalera txikiagoa izan dezaken, mahaigainean dagoen planteamendua handiegia iruditzen baitzaigu. Badirudi "Eskola Txikia" kategoria barruan azalera txikiagoa daukan zerbait planteatu daitekela. OAK hezkuntzako arduradunarekin hitz egingo du Eskola Txikien ezaugarri fisikoak zeintzuk diren argitzeko.

6. Jauralaritzaren ingurumeneko dirulaguntza

Jauralaritzak eman duen dirulaguntzaren harira IAK proposatu du auzolan egun bat egitea eta hori aprobetxatzea egiten ari diren aktuazioak ezagutarazteko herritarren artean eta egingo direnak prestatzeko.

7. Bestelako kontuak

ARK proposatu du plazan bizikletantzako gordeleku publiko bat egitea, adibidez frontoiaren eskubialdeko tartea erabiliz. Oso ideia ona dela pentsatu dugu eta etorkizunean aztertuko dugu lasaiago.

DEK esan du Telefonica-ko komertzialak ibili direla herrian fibra optikoa portaletara eramateko baimenak eskatzen... Sorpresa handia izan da guretzat, udaletxean ez bait genekien ezer. KFK idazkariarekin hitz egingo du.